


Euskal AEko Eraikuntzaren sektoreak % 13,2 egin zuen behera 2011ko laugarren hiruhilekoan

Eraikinen azpisektoreak % 12,6ko beherakada izan zuen, eta Obra Zibilarenak % 14,4koa

Euskal AEko eraikuntza: EUSTATEN datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneoari dagokionez, Euskal AEko Eraikuntzaren sektoreak urte arteko % 13,2ko beherapen nominala izan zuen 2011ko laugarren hiruhilekoan. 2011ko urte osoa kontuan hartuta, beherakada % 10,4koa izan da, aurreko urtearekin alderatuta.

Estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean, 2011ko laugarren hiruhilekoan Eraikuntzaren sektoreak % 5,3 egin zuen behera, 2011ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

1. grafikoa: Euskal AEko Eraikuntzaren Koiunturako Indizearen urte arteko hiruhileko hazkunde zuzendua Guztira, Eraikuntza eta Obra Zibila (%)



Iturria: Eustat. Euskal Aeko Eraikuntzaren koiunturako indizea. (EKI)

Eraikuntzaren sektoreak 2011ko laugarren hiruhilekoan behera egin zuen, Obra Zibilaren azpisektoreak (-% 14,4) eta Eraikinenak (-% 12,6) biek ere urte arteko emaitza negatiboak izan zituztelako. Urte osoa kontuan hartuta, Eraikinen azpisektoreak % 11,2ko beherakada izan zuen, eta Obra Zibilarenak % 8,7koa.

Hiruhileko arteko terminoetan, sektoreak 2011ko laugarren hiruhilekoan izan zuen jarduera eta aurreko hiruhilekoan izandakoa alderatuz gero, ikusten da Eraikinen azpisektoreak eta Obra Zibilarenak, biek ere, % 5,3ko bilakaera negatiboa izan zutela.

Eraikuntzaren sektoreko enpleguak % 3,7 egin zuen behera, 2011ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 10, 1 jaitsi zen aurreko urteko laugarren hiruhilekoarekin erkatuta.

1. taula: Eraikuntzaren Koiunturako Indizea Euskal AE 2011ko 4. hiruhilekoa. Aldakuntza tasak (%). Behin-behineko datuak.

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	11 4.hir / 10 4.hir	At/At-1 (1)	11 4.hir / 11 3.hir	11 3.hir / 11 2.hir
Produkzioaren indizea	-13,2	-10,4	-5,3	-1,6
Eraikuntza	-12,6	-11,2	-5,3	-0,3
Obra zibila	-14,4	-8,7	-5,3	-4,1
Landunen indizeak	-	-	-3,7	-2,3

(1) t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal Aeko Eraikuntzaren koiunturako indizea. (EKI)

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](http://eustat.euskadi.net)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturari buruzko indizea (EKBI); prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturari buruzko indizea (EKBI); datu-bankua